

Bakarrizketak eta zutabeak

Joxean AGIRRE

Bakarrizketa eta zutabea seni-deak dira, bizkiak ez esateagatik, bata mintzatuan eta bestea idatzian gauza bat eta bera ia. Modu dotoreagoan esateko, bakarrizketa antzerkian dena da zutabea kazetaritzan. Urteak kostatu zait ondorio horretara iristea. Beti gustatu izan zait bakarrizketa, telebistan bakarrik ikusi izan badut ere, baina badakit mikrofonoa eskuetan hartuta jendaurrera atera beharko banu, ez nukeela ezer esaten asmatuko eta horregatik idazten dudala noizbehinka (esaten didatenean) zutabe bat.

Bakarrizketagile eta zutabegile onek antzeko ezaugarriak dituzte: norberetik hitz egin behar dute, ausardia puntu batekin eta lotsagabekeria tanta batzuk baditu, hobe. Tarteka dramatiko jarri

daiteke, baina umorea izan behar du bere baliabide naturala. Egitura aldetik, txiste batekin has daitezke edo pasadizo xeble batekin, aipu jasoren batekin jarraitu, gogoeta sakonei bide ematen saiatu, baina ezingo dute bide horretatik jarraitu, arintasuna baita bi genero horien ezaugarri behin-behinekoa. Eta jendearen barrea edo irribarrea piztuko duen ateraldi edo kontu xeble batekin bukatu behar du. Bestela, bakarrizketa sermoi eta zutabea iritzi artikulu bilakatuko dira. Bakarrizketak jendearen txaloak eragin behar ditu.

Garbi dago zutabe honek ez lidakeela txalorik ekarriko, baina nik ere badut gordeta nire sorpresatxo: duela hilabete pasa Amagoia Mujikak GAUR8 honetan bertan egin zuen erreportaje eder batetik hartuko dut aipua. Ane

Lindane bakarrizketagilearena da: «Emakume umoregile askok jotzen dute gozotasunera. Gozo hitz egiten dute, nahiz eta gauza oso lodiak esan. Baina badirudi emakumeak beti gozo aritu behar duela, atseginak izan behar dugula. Nik ez dut atsegina izan nahi; gainera, ez zait ateratzen horrelakoa izatea. Nik lotsagabea izan nahi dut, oihukatu...», esaldiak luze jarraitzen du.

Ni erabat kezkatuta nenbilen zutabegintzan emakume askok (uste dut ber-tsotan ere gertatzen ari dela fenomeno bera) erakusten duten eztikeria gehiegizkoarekin eta Lindanek argitu dit arazoa eta erakutsi dit bakarrizketa eta zutabea gauza bat eta bera direla. Zutabe honi bukatzeko ateraldi edo txiste bat falta zaiola badakit, baina ez zait bada ezer bururatzen. •

Argitxok bakarrik ezin du

Amagoia MUJIKATELLERIA

Kontseilua kezkatuta dago euskararen normalizazioaren kontrako oldarraldiarekin. Manifestazioa deitu du azaroan.

Eta kezkatuta egotekoa da. Epaileak harro asko dabiltza hizkuntza eskubideak egurtzen eta komunikabide espainol batzuetan Argitxoren kontrako kanpaina ere hasi dute. Eskoletan haurrak euskarara gerturatu nahi dituen iratxoa da Argitxo. Sinpatikoa zelakoan nengoen, baina kazetari espainol batek kontatu digu beldurgarria dela. Euskaraz hitz egiten ez duten haurrak ohearen azpian ezkututzen omen dira Argitxoren beldur. Ume koitaduak.

Norbaitek pentsatuko du euskaldunak zapaltzaile hutsak garela, Euskal Herrian euskararen diktadura gogorra ezarrita dagoela eta beste hizkuntzek ez dutela arnasik. Euskara belarrietan lehertzen zaigula kale bazter guztietan, jolastoki denetan, futbol zelaietan, kuadrilletan, lantokietan, anbulategietan... eta euskaraz ez dakitenak itolarrian bizi direla, ezagutzen ez duten eta ikasteko hain aldrebesa den hizkuntza horren erruz. Norbaitek pentsatuko du gure neska-mutikoak euskararen paradisuari bizi direla TikTokera sartzen diren bakoitzean eta influencer eta youtuber euskaldunak lotsagabe aberasten ari direla.

Norbaitek pentsatuko du osasuntsu eta indartsu dagoela euskara Euskal Herrian eta, horrekin konforme ez, eta inguruan dituen hizkuntzak zapaltzea beste helbururik ez duela. Euskal Herria, euskararen diktadurapean. Akaso norbaitek hori pentsatuko du, ipuin hori saltzen ahalegintzen direnek bozgorailu ozenak dituztelako.

Mesedez, atera ohe azpitik eta zabaldu begi-belarriak. Hor ikusiko duzue Argitxo, balantzaka, noraezean, euskarari ahoz ahokoa egiten, haren taupadari eutsi nahian. Euskararentzat zer nahi dugun erabaki beharko dugu. Argitxok bakarrik ezin du. •